

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## ORKIDEAK DONOSTIARA ITZULI DIRA

Aurten ere, basa-orkideen presentzia antzeman da Donostian, zehazki Bizkaia Pasealekuan eta Gernikako Arbolan.

Iaz ere aurkitu zituzten lore horiek, eta, horregatik, pasealekuko parterreetako belarra ez moztea erabaki zen, lore horien populazioa babesteko eta sustatzeko.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, "neurri garrantzitsua da ikuskizun natural honetaz gozatzeko. Ia beti toki exotikoekin identifikatzen ditugu lore horiek, loradendetan erosten ditugun landareekin, baina orkideak planetako ekosistema ia guztietan daude, eta gure hirian, hainbat lekutan, orkidea basatien espezie ezberdinez goza daiteke. Horregatik, haien hazkuntza eta ugaritzea babesteko, atzeratu egingo da Bizkaiko eta Gernikako Arbolako pasealekuetako belar-mozketa lanak. Orkideoek bere bizi-zikloa amaitzen dutenean egingo dira, datorren urterako hazi-sakabanaketa egin ondoren.

# Prensa oharra

## Nota de prensa

Orkideak loreak dira, eta erdiko petaloak edo labeloak forma eta kolore deigarriak eta edertasun handikoak hartzen ditu. Orkidea mota bakoitza intsektu polinizatzaile jakin bat erakartzeko espezializatzen da, dela bere ikusgarritasunaren bidez, dela beste zentzumen batzuk hartzen dituzten beste ezaugarri batzuk garatuz, intsektu polinizatzaileak erakartzeko.

Hauek dira Donostian identifikatutako orkidea basatien espezieak: *Anacamptis pyramidalis*, *Ophrys apifera*, *Serapias lingua*, *Ophrys fusca* (oso arraroa hemen, Mediterraneokoa delako), baita *Ophrys sphegodes* eta *Ophrys speculum* ere.

Garmendiak nabarmendu du lore horiek errespetatu egin behar direla, eta herritarrak inplikatu behar direla hiri-biodibertsitatearen sustapenean eta gure hiriaren birnaturalizazioan, gero eta leku gehiago utziz eta espezie basatientzat.